



IKUS-ENTZUNEZKO KONTSUMOA TELEBISTAN

1. Txostena


2019ko martxoa

IKUS-ENTZUNEZKO KONTSUMOIA TELEBISTAN

Gure ikerketaren helburua ikasleen artean nagusitzen den ikus-entzunezko kontsumo joera aztertzea da. Horregatik, azken aldiz telebistan ikusi dutenari buruz itaundu diegu.

1. Ikusitako azken programak

1. Irudia - Azken programa ikusienak:




Iturria: Ikusiker

Ikusi dituzten programen artean orokorra El Conquis edo El Conquistador del Fin del Mundo izan da. Inkestan parte hartu duten ikasleen %28,69ak ikusi du. Gran Hermanok jarraitzen du %13,62arekin eta gero, Salvadosek (%7,54rekin).

Guztira berez 133 produktu desberdin aipatu dira. Hauetatik 70 behin baino ez dituzte adierazi. Goiko grafikoan parte-hartzaileen adierazpenetako errepikatuenak ageri dira.

2. Irudia - Albistegiak ikusi dituztenen aukeraketa:




Iturria: Ikusiker

Albistegiak ikusi dituztenen artean kanalik hautatuena ETB2 izan da (adierazpenen %26,80arekin). Bigarrena bestalde, ETB1 (hautuen %24,74rekin).

Albistegien inguruan aipatzekoa da jendeak "teleberri" eta "telediario" hitzak generikoki erabiltzen dituela. Hau da, berba hauek ez dira kate batekin edota programa zehatz batekin lotzen. Edozein albistegi aipatzeko erabiltzen dira.

3. Irudia - Kontsumoa generoka:




Iturria: Ikusiker

Ikusi diren programak generoka sailkatu ditugu. Inkestan parte hartu dutenen kontsumo erabakietan gailendu dena Fikzioa Sailak delakoa da. Ikasleen %22,34ak hautatu du. Bigarren aukera nagusiena Kirolen generoa izan da (%18,09ak ikusi du). Hirugarren postuan berriz, bi genero daude Informazioa eta Programa Hezitzaile Dibulgetzaileak. Biek kontsumoaren %14,89 lortu dute.

2. Programak ikusi diren lekua

4. Irudia - Erabilitako espazioak:



Iturria: Ikusiker


Aipatu diren telebista programak ikusteko leku nagusia etxea izan da. Gazteen %95,28ak hala adierazi du. Badira ere kalean, garraio publikoan edota tabernan ikusi dutenak, baina gutxi batzuk baino ez dira.

Parte hartzaileen %2,72ak beste leku bat erabili duela adierazi du. Espazio horiek hauek dira:

- 1- Ikasle egoitza
- 2- Lagun baten etxea
- 3- Ikasle pisua

3. Aukeratutako telebista kanalak

5. Irudia - Telebista kanalen aukeraketa:




Iturria: Ikusiker

Erabili dituzten kanalak zeintzuk izan diren ere galdetu diegu. Goiko grafikoan irakurri daitezkeen kateak eman dizkiegu aukera modura. Eta beste kanalen bat erabili dutenentzat zehazteko aukera eskaini dugu.

Datu hauen arabera kate hautatuena ETB2 izan da, ikasleen %19,19ak erabili du. Kontuan izan behar da programa ikusia El Conquis izan dela. Gero Tele5 dago, hautuen %13,28arekin. Honakoak seguraski Gran Hermanorekin du lotura.

Parte-hartzaileen %20,49ak goiko grafikoan ageri diren kanalak ikusi orde zehazteko grafikoan daudenak ikusi ditu.

6. Irudia - Telebista kanalen aukeraketa:




Iturria: Ikusiker

Hauen artean aipagarrienak Neox, Movistar+ eta Bein dira. Beste kate bat ikusi dutela aipatu dutenen %23,94k aukeratu du lehena, Neox. %16,20ak berriz, Movistar+ eta %5,63ak Bein.

4. Aukeratutako hizkuntza

7. Irudia - Erabilitako hizkuntzak:



Iturria: Ikusiker

Hizkuntza erabiliena espainiera izan da. %7,18ak baino ez ditu azken programak euskaraz ikusi. Egia da gaztelaniaz aukera gehiago dagoela, baina dena den kontuan hartzeko datua da.

Euskaraz aipatu diren programak gutxi batzuk izan dira: Ur Handitan, Herri Txiki, Gaur Egun, Gure Kasa eta txirrindularitza. Bestalde, telebista ikusterako unean ingeles eta frantsesak ez dute indar handirik izan.